

# Busturialdeko Ur Patzuergoak Bilbao Bizkaia Ur Patzuergoan sartzeko lehenengoko pausuak emon dauz

2018ko ekainaren 26<sup>a</sup>

**Gura dabeen herriek euren borondatez** Bilbao Bizkaia Ur Patzuergoan sartzeko **tramiteak edota dagozkien negoziazioak hasteko proposamena** bere Kontseilu Orokorrari egitea onartu dau Busturialdeko Ur Patzuergoko Batzorde Betearazleak.

**Uraren kudeaketa egoki eta moderno batek honakoa izan behar dau kontutan:**

1.- Ura **baliabide natural berriztagarria** da eta honakoa behar dau:

- Uraren erabilera arduratsua bermatu.
- Bere kalitatea babestu eta berreskuratu, giza-kontsumorako edota ingurugiroari dagokionez.
- Ur eskasia lurralde baten garapenerako traba ez izatea.

2.- Ura **baliabide mugatua** da eta honakoa behar dau:

- Erabilpen egoki bat, lurraldeko egungo eta etorkizuneko beharrianak betetzeko eta ingurugiroa babestuz, isurketak modu egokian eginez eta ingurumenaren emariak errespetatuz.

3.- Ura **planifikatu** behar da bere erabilpena eta kontserbazioari dagokionez:

- Egungo egoera kontutan hartuz, erabilpena eta kontserbazioari arlo kuantitatiboak eta kualitatiboetan, ezinbestekoa da bere eboluzioa planifikatzea epe luzera, lurralderako aurreikusitako garapenagaz bat eginez.

4.- Urak **lurraldeko antolamenduak du eragina**

- Ura, askotan, lurraldeko antolamenduko egiturarako elementu eragilea da.

5.- Urak **kostu bat** suposatzen dau

- Urak ura ordaindu behar dau.
- Uraren prezioa bizkaitar guztiontzako parekoa izan behar da.
- Biztanleek kalitatezko eta behar besteko ura izateko beharrezko gastuak bete behar dauz Uraren prezioak.
- Uraren prezioaren barne honakoa egon behar da: uraren kalitatea bermatzeko beharrezko inbertsioak, modu naturalean betetzeaz harago akuiferoen ustiapena ekiditu, ur-emari naturalak mantendu, modu egokian tratatutako uren isurketa, besteak beste.

**Ahalmen teknikoak eta ekonomikoak dauzkan Erakunde publiko batek egin behar dau uraren kudeaketa, lurraldeen arteko alkartasuna bermatuz.**

Ur horniketa, estolderia eta ur zikinen tratamenduan dogu eskumena udalerririk eta nola antolatuko garen erabakitzeke ahalmena daukagu be.

1992. urtean Oxiñako eta Buspemuneko Mankomunitateko udalerriek lehenengoko pausu bat emon ebeen eta Bizkaiko Foru Alduniagaz batera Busturialdeko Ur Partzuergoa osatu ebeen.

Partzuergo honek eguneratuz joan da eta gaur egun 16 udalerrri osatzen dabe. Bertan 44.649 biztanle dagoz, modu heterogeneoan sakabanatuta, %75a, 33.692 biztanle, bi herritan dagoz ( Gernika-Lumo eta Bermeo) eta gainontzeko %25a, 10.957 biztanle, beste 14 udalerrietan dago, herriek 311tik 1861 biztaleen artekoak dira. Partzuergoaren barne be Bizkaiko Foru Aldundia eta Eusko Jaurjaritza dagoz.

Busturialdeko Ur Partzuergoak urtero 6 millioi euro inguruko aurrekontua kudeatzen dau, hauetatik %16a inbertsiora zuzenduz. Baliabide hauek ez dira nahikoak geure azpiegituren mantenimendua eta konponketen beharrianak finantzatzeko. Ezta indarrean dagozen Araudiak eta onartzeko dagozenak bete ahal izateko beharrezkoak doguzen azpiegiturak ordaintzeko bez.

Busturialdeak arazo garrantzitsuak dauzka gaur egun:

**Horniketa.-** Horniduraren Lurralde Ekintzako Planak, Busturialdeko Ur Partzuergoak, Bizkaiko Foru Aldundiak eta Eusko Jaurjaritzak burututakoa, Urdaibaiko arropa uran defizitariora dala egiaztatu da. Hori dala eta eskualdeko mugez kanpoko baliabideak behar dauz

**Ingurumenaren ur emariak.-** Baliabide honen defizitak geure eskualdean ingurumenaren ur-emariak ez betetzea ekartzen dau, urtero zehapen espedienteak izatea suposatzen dau honek. Honen eraginez uraren kostua igo egiten da, izan be, dagozen baliabideek ezin dogu biztanleriaren eskaera eta ingurugiroa zaintzea bateratu.

**Hiri erabilpen barriak gelditzea.-** Eskumendun erakundeek edonolako hiri planifikazio barrien aurrean txarrerako informazioa emoten dabe, ur baliabide nahikoak ez dauzkaguzela justifikatzeko ezintasunean oinarrituz.

**Saneamentua.-**Ur zikinen tratamenduko Araudia ez betetzeagatik eskualdean zabalik dagoen Europako zehapen espedienteari zain gagoz.

Saneamenduko Lurraldeko Ekintza Plana betetzeko beharrezkoak diren azpiegitura batzuk burutzen gabiz eta uda honetan Sukarrietako ponpaketa-estazioa eta ekaitztanga martxan hasiko dira. Hauei esker Busturialdeko Bermeorako ur zikinak Lamiarango HUAra eraman ahal izango dira, uraren kudeaketaren precio igoera ekarriko dau honek.

Busturialdeko Ur Partzuergoak gabezi teknikoak eta ekonomikoak dauzka ta geure eskualdeko hornikuntza eta saneamenduko beharrianak ezin dira bete. Horregatik, kontseilu betearazlearen gehiengoak honakoa onartu da (baiezko 6 boto eta ezezko boto bat): Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoan sartzeko tramiteak hasi. Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoak irabazi asmorik gabeko Erakunde Publikoa da eta Bizkaiko %91eko biztanleria batzen dau.

Bertan sartzeak, aipatutako abantailaz gain, lurraldean gai honetan beharrezkoak diren inbertsioak egiteko kolaboratuko dogu, alkartasunez eta lurralde mailan eginez. Horrela, bizkaitar guztioak uraren kudeaketagatik bardin ordainduko dogu. Geure betebeharra da.

Consortio de Aguas  
de Busturialdea



Busturialdeko Ur  
Partzuergoa